

## **ESKORIATZAKO GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILUAREN ARAUDIA.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Urriaren 18ko 5/1996 Legea ordeztzen duen Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gai horretako administrazio jardueraren printzipio gidari bezala herritarrek gizarte zerbitzuetan parte hartzeko bideak ezartzen ditu. Lege horrek aurreikusten du gizarte-zerbitzuen tokiko-kontseiluak sortzea kontsulta eta aholku organo gisa gizarte-zerbitzuen plangintza, antolakuntza eta funtzionamenduari buruz; eta horrela, eztabaidaren bidez eta organo eskudunei proposamenak eginez, gizarte zerbitzuak definitzen laguntzea.

Toki erregimenari buruzko araudiak zein Udal Erregelamendu Organikoaren 24. artikulua arlokako kontseilu aholkulariak sortzeko aukera ere aurreikusten dute herritarren parte hartzea bideratzeko, kontseilu horien funtzioak aholkuak ematea eta proposamenak egitea izanik.

Horrela, kontseilu hau toki erregimenaren araudiak toki entitateei ematen dien autoantolaketa ahalmenari jarraiki sortzen da, eta era berean, herritarrek udal gaietan parte hartzea errazteko ere balio du, besteak beste, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 69. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 43. artikulua agintzen duten bezala.

Eskoriatzako Gizarte Ekintzako Kontseilua herriko gizarte ekintza publikorako tresna erabilgarria izateko helburuarekin sortu da. Kontseiluak Udalaren eta gizarte eragileen arteko elkarrizketa eta topagune foroa izan nahi du, eta baita gizartearen errealitatearen ezagupena hobetzeko eta informazio fidagarri eta eguneratuan oinarrituta ekintzak egiteko tresna ere. Gizarte ekintza gauzatzen den eremuetan informazioa bildu, datuak aztertu, azterlanak egin eta ekintzak bultzatuko dituen lekua izateko pentsatuta dago.

Edozein modutan, Kontseilu honek proposatutako jardueren izaerak parte hartzea eta generoen arteko parekotasuna bermatu beharko ditu. Beraz, ez da onartuko printzipio horien aurkako talde sozialik edo jarduerarik.

Bestalde, kontuan izanik Eskoriatzako Udalak euskararekiko duen konpromisoa, kontseiluak sustatutako edozein jarduera euskararen normalizazioa lortzera zuzenduta egon beharko da. Horretarako, kontuan hartuko dira udaleko euskara arlotik emandako irizpideak.



## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### **1.- artikulua. Araudiaren xedea.**

Araudi honen xedea da Eskoriatzako Udalaren Gizarte Ekintzarako Kontseilua arautzea.

### **2. artikulua.- Kontseiluaren izaera.**

Gizarte Ekintzako Kontseilua sektoreko partaidetzarako kide anitzeko organo iraunkorra da aholkuak, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamenak bideratzeko; eta bere helburuak dira udal gizarte politikari ekarpenak egitea, herriko gizarte egoeraren ezagupena hobetzea eta udaleko gizarte ekintzari lotutako jarduera eta aurrekontuak baloratzea.

Kontseilu honek izaera aholku emailea du, hau da, iritziak emateko eta proposamenak egiteko ahalmena du; iritzi eta proposamenak ez dira lotesleak izango, baina, bideak ezarriko ditu udal jardueran eragina izan dezaten.

### **3. artikulua.- Kontseiluaren xedea.**

Gizarte Ekintzako Kontseiluaren helburu nagusia da herritarren parte hartzea sustatzea gizarte zerbitzuetako udal jarduera lerroak zehazteko eta ebaluatzeko, eta gizarte zerbitzuen arloan Eskoriatzako Udalak dituen eskuduntzak gauzatu, bete eta hobetzeko.

### **4. artikulua.- Kontseiluaren funtzioak.**

Gizarte Ekintzako Kontseiluak ondorengo funtzioak ditu:

- Gizarte ekintzaren eremuko udal politikan organo aholku emaile bezala aritzea eta helburu orokorrak eta zehatzak finkatzen parte hartzea.
- Gizarte ekintzako aurrekontu lerroak ezagutu eta baloratzea eta egoki iritzitako proposamenak landu eta egitea.
- Eskoriatzako egoera soziala aztertzea eta kolektibo ahulenen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko ekintzak proposatzea.
- Gizarte zerbitzuen alorreko udal jardueraren lerroak ezagutzea eta horien ebaluazioa aztertzea.
- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta bertako profesionalen eskubideak eta betebeharrak betetzen lagunduko duten proposamenak eta ekimenak ezagutzea eta bideratzea.
- Gizarte ongizatearen arloan diharduten erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea.



## **5. artikulua.- Kontseiluaren organoen funtzionamendurako hizkuntz irizpideak.**

Kontseiluaren organoen barne funtzionamenduan lehentasunezko hizkuntza euskara izango da, bai ahozkoan bai idatzizkoan, baina EAEko bi hizkuntza ofizialetan jarduteko aukera eskainiko da, hizkuntza minorizatua den euskarari lehentasuna emanez. Parte-hartzaile bakoitzak berak nahi duen hizkuntza erabili ahal izango du, izan euskara izan gaztelania, baina horretarako inolako itzulpen zerbitzurik gabe.

Aktak euskara hutsean jasoko dira. Kontseilukideren batek itzulpena eskatzen badu, itzulitako bertsioa helaraziko zaio.

Kontseiluaren diktamenak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, eta ele bietan egiten direnean, euskarari emango zaio lehentasuna.

Deialdiak webgunean ele bietan publikatuko dira.

Kontseiluak berak herritarrei zuzendutako komunikaziorik edo ekimenik eginez gero, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo ditu, ele bietan egiten direnean, euskarari lehentasuna emanez.

Aurreikusi ezin den beste edozein hizkuntza egoera suertatuz gero, Udal Euskara Zerbitzuari kontsulta egingo zaio.

Edozein kasutan, hala nahi izanez gero, Kontseiluak Udal euskara zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango du euskarazko testuen zuzentasuna ziurtatzeko.

## **6. artikulua.- Baliabideak atxikitzea.**

Kontseiluak Eskoriatzako udaletxean izango du bere egoitza, baina, kontseiluburuak erabaki ahal izango du bilerak beste tokiren batean egitea. Eskoriatzako Udalak behar besteko baliabideak jarriko ditu kontseiluaren esku kontseiluak bere jardura egin ahal izateko.

## II. KAPITULUA KONTSEILUAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

## **7. artikulua.- Organoak.**

Gizarte Ekintzako Kontseilua ondorengo organoek osatuko dute:



- Kontseiluak.
- Osoko bilkurak.
- Lan batzordeak.

### **8. artikulua.- Kontseiluburua.**

Kontseiluburua Eskoriatzako Udaleko alkatea izango da beti, edo, hala badagokio, gizarte zerbitzuetako zinegotzi arduraduna, alkateak aurrez horretarako eskuordetuta.

Kontseiluburuaren funtzioak honako hauek izango dira:

- Kontseiluaren osoko bilkurak deitu eta horietan buru izatea.
- Lan batzordeen bilerak deitu eta bertan buru izatea, kontseilukideren bati eskuordetutakoan izan ezik.
- Kontseilu aholku emailearen eta udal organoen arteko harremanak koordinatzea.
- Erabakien aktak eta ziurtagiriak onestea.
- Kontseiluaren xedek bete daitezen eta bere jarduerak indarrean dagoen araudiari egokitu daitezen zaintzea.
- Kontseiluburuari berez dagozkion funtzio guztiak betetzea.

### **9. artikulua.- Kontseiluaren osoko bilkura.**

Oro har, bertako kide honako hauek izango dira:

- Kontseiluburua.
- Kontseiluko idazkaria udaleko gizarte zerbitzuetako arloko teknikaria izango da. Teknikari lanpostua hutsik balego edo teknikaria kanpoan edo gaixorik, kontseiluburuak izendatutako udal langileak ordezkatu du.
- Kideak:
  - Eskoriatzako Udala osatzen duten udal taldeek izendatutako ordezkari bana. Talde bakoitzaren bozeramaleek Udal erregistroan aurkeztutako idazki bidez jakinarazi beharko dute kontseiluan parte hartzeko nahia eta taldearen ordezkariaren, eta hala balitz, horren ordezkoen, izena(k).



- Beraien jarduera arloak gizarte ekintzarekin harreman zuzena duten eta legez eraturako herriko elkarte bakoitzaren ordezkari bat, betiere, kontseiluan parte hartzeko nahia adierazi baldin badute eta beraien jarduera Eskoriatza garatzen badute. Elkarteko ordezkaria elkarteak berak izendatuko du bere barne antolaketa eta funtzionamendu arauen arabera. Elkarte bakoitzak Udal erregistroan aurkeztutako idazki bidez jakinarazi beharko du kontseiluan parte hartzeko nahia eta bere ordezkariaren, eta hala balitz, horren ordezkoen, izena(k).

Emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzeko ahaleginak egingo dira.

Ahaleginak egingo dira udal talde baten edo elkarte baten izenean doazen pertsonak bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz 5. artikulua jasotakoa bete dezaten.

- Era berean, gonbidatu gisa, berba egiteko aukerarekin baina ez bozkatzekoarekin, joan ahal izango dira kontseilura sentsibilitate berezia izan eta kontseiluaren osoko bilkuran lantzen eta garatuko diren programa eta ekintzetan laguntzeko borondatea adierazten duten pertsona (fisikoak eta juridikoak) guztiak, beraien kontseiluan egotea egokitzat jotzen denean.

Kontseiluko kide bakoitzak adierazi beharko du bertan modu indibidualean edo talde edo udal talde baten ordezkari bezala dagoen. Hori eratzeko aktan jaso beharko da eta baita kide berriak sartzen diren aldi bakoitzean ere.

Kontseilu honetako eskubide osoko kide izateko nahikoa da Kontseilua eratzeko lehen saiora joatea edo ondoren egingo diren bileretakoren batera. Edozein modutan ere, interesa duen pertsonak edo erakundeak aurrez jakinarazi beharko du idatziz parte hartu nahi duela.

Une horretatik, bere datuak (posta elektronikoa, telefono zenbakia, eta hala badagokio, ordezkatzeko duen elkartearen izena) kideen zerrendan sartuko ditu idazkariak, eta osoko bilkura horretako kide izango da hitz egiteko eskubidearekin.

Bilera horretatik aurrera boto eskubidea izango du eta, idatziz edo kontseiluaren bileraren batean berak horrela esanda kontseiluko kide izateari uzteko asmoa era fede-emailean adierazten ez den bitartean, kontseiluko kide izateari joko da. Hala ere, urtebetean ez bada bileretara etortzen edo aktiboki parte hartzen kontseiluaren funtzionamenduan ekarpenak eginez edo proiektuak aurkeztuz (posta elektronikoz edo beste edozein bideetik), Kontseiluak berak erabaki ahal izango du pertsona hori kontseilutik kanpo uztea. Kontseilutik kanpo uzteko beharrezkoa izango da kanporatuari hori jakinaraztea ohiko bideetatik (posta elektronikoa, telefono mezua eta abar).



Kontseiluko idazkariari dagokio kontseiluko osoko bilkurako kideen erregistro eguneratua eramatea, altak eta bajak erregistratuz.

#### **10. artikulua.- Kargua uztea.**

Kontseiluko osoko bilkurako kide izateari utzi ahal izango zaio:

- a) Norberaren borondatez, idatziz jakinarazita.
- b) Kontseilutik kanporatua izateagatik araudi honetan adierazitako funtzioak behin eta berriz ez betetzeagatik.
- c) Ordezkatzen duen elkarte, taldea edo kolektiboa desegin delako.
- d) Bera ordezkari izendatzeko erabilitako irizpidea aldatzeko elkartearen estatutuetan izandako funtsezko aldaketengatik.
- e) Ordezkaritza aldatu izanagatik edo, kontseiluburuaren kasuan, kargua uzteagatik.
- f) Ordezkatzen duen elkartetik kanporatua izanagatik edo elkarteak berak, bere kontseiluan, bere ordezkaria kanporatzea erabaki izanagatik.
- g) Heriotzagatik.
- h) Hiru bilera baino gehiagotara ez joateagatik inolako justifikaziorik gabe.

Aholkularitza kontseiluko kide izateari uztearen berrespena Kontseiluak egingo du kontseiluburuak proposatuta.

#### **11. artikulua.- Kontseiluaren osoko bilkuren erregimena.**

Kontseiluaren osoko bilkurak publikoak izango dira.

Kontseiluko osoko lehenengo bilkura araudi hau indarrean sartzetik hurrengo bi hilabeteko epean egin beharko da. Lehenengo bilkura horretan bilkuren egutegia erabakiko da, eta gutxienez urtean ohiko bilera bi egin beharko dira. Bata, urte hasieran (udal aurrekontuak onartutakoan), eta bestea, urrian edo azaroan (hurrengo ekitaldiko udal aurrekontuak onartu baino lehen).

Egin beharreko bilera kopurua jorratu beharreko gaien arabera izango da.

Kontseiluburuak derrigortuta egongo da ez ohiko bilerara deitzera gutxienez kontseilukideen laurdenak horrela eskatutakoan.

Bilerak, gutxienez, 7 egun naturaleko aurrerapenarekin deituko dira, premiazko izaerako ez ohikoak izan ezik. Kasu horietan, deialdia 24 ordu aurretik egin ahal izango da, eta premiazkoasuna kontseiluak berretsi beharko du.



## **12. artikulua.- Deialdiak egiteko modua.**

Ohiko eta ez ohiko bileretarako deialdia posta elektronikoz egingo da kideek emandako helbidera deialdia eta aurreko bilerako aktaren zirriborroa bidaliz.

Deialdia udaleko web gunera era bidaliko da hizkuntza ofizial bietan.

Deialdia, gutxienez, 7 egun natural aurretik bidaliko zaie parte hartzaileei.

Kontseiluburua izango da deialdia egin eta gai zerrenda erabakiko duena.

Gai zerrendan ez dagoen presazko eta garrantziko gaiak aztertu ahal izango dira aldeztatik aurretik bertaratuen gehiengo soilez horrela erabakiz gero.

Bilkurak baliozkoak izateko, gutxienez kontseilukideen herena, titularrak edo ordezkariak, izan beharko dira bertan. Edozein modutan ere, bertan izan beharko dira kontseiluburua eta idazkaria edo horien legezko ordezkariak.

## **13. artikulua.- Bilkuretan jorratutako gaiak jasotzeko era.**

Gizarte zerbitzuetako udal teknikariak, hau da, kontseiluko idazkariak, bilkura bakoitzaren akta egingo du, eta bertan, zeintzuk izan diren bilkuran, eztabaiden gorabehera garrantzitsuenak eta hartutako erabakien edukia jaso beharko dira. Aktak 5. artikuluan ezarritako hizkuntz irizpideen arabera idatzi beharko dira.

Aktak hurrengo bilkuran onartuko dira.

## **14. artikulua.- Proposamenak onartzeko era.**

Indarrean dagoen legediaren arabera, Kontseiluak izaera informatzailea du, eta beraz, kontseiluak ez du erabakiak hartzeko ahalmenik.

Bilkuretan jorratutako gaiei buruzko proposamenak bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko dira. Bozketan berdinketa izanez gero, bozketak berria egingo da, eta berdinketak jarraituko balu, kontseiluburuaren kalitatezko botoak erabakiko du.

Kontseiluak kontsulta eta herritarren parte hartze izaera duenez, bere diktamenek garrantzi berezia izango dute, gomendio maila udal gobernu organoentzat. Gobernu organo horiek erantzun arrazoitua



eman beharko diete onartzen ez dituzten gomendioei. Kontseiluaren diktamenak zein gobernu organoen erantzunak publiko egin beharko dira Udalaren webgunean herritarrak informatuta egon daitezzen.

Diktamen horiek 5. artikuluan ezarritako hizkuntz irizpideen arabera idatzi beharko dira.

### **15. artikulua.- Kontseilukideen eskubideak eta betebeharrak.**

Eskubideak:

1. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea.
2. Proposamenetan parte hartzeko eta, kontseiluan azter daitezzen, intereseko gaiak planteatzeko eskubidea.
3. Onartutako proposamenen gaineko Udalaren betetze mailari buruzko datuak eskatzeko eta erantzunak idatziz jasotzeko eskubidea.
4. Kontseiluan eratuko diren lan taldeetako edozeinetan parte hartzea.

Betebeharrak:

1. Kontseilura joatea eta bertan aktiboki parte hartzea. Hiru bileretara jarraian justifikatu gabe ez joatea behar besteko arrazoia izango da kontseilutik kanporatzeko.
2. Kontseiluaren araudia betetzea.
3. Kontseiluan onartutako proposamenak errespetatzea.
4. Kontseiluaren printzipioen eta helburuen aurkako jarrerarik ez izatea edo adierazpenik ez egitea.
5. Beraiek ordezkatzan dituzten elkarteekin edo erakundeekin harreman jarraia izatea Kontseiluan jorratu behar diren edo jorratu diren gaiei buruz.
6. Kontseiluan ordezkaritza duten pertsonen harremanetarako helbidean edo egoera juridikoan izandako edozein aldaketa jakinaraztea.

### **16. artikulua.- Lan taldeak.**

Kontseiluan hainbat lan talde sortu ahal izango dira.

Kontseiluak, kontseiluburuaren edo kontseilukideen herenaren ekimenez, beharrezko irizitako lan taldeak eratzea erabaki ahal izango du eta horietako kide izango direnak izendatu.





Talde horiek gai jakin eta zehatzetarako eta denbora muga baterako izango dira. Beraien jarduera amaitutakoan, emaitza Batzordeari jakinaraziko zaio, hala badagokio, dagokion erabakia har dezan.

Lan taldeetako burua kontseiluburua izango da, baina, batzordeko edozein kideengan eskuordetu ahal izango du.

Edozein modutan ere, Kontseiluko osoko bilkurako kideek osatuko dituzte lan taldeak. Era berean, lan taldeetan parte hartu ahal izango dute ere bileran egotea egokitzat iritzitako teknikari, aditu edo beste edozein pertsonak.

Emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzeko ahaleginak egingo dira.

Ahaleginak egingo dira udal talde baten edo elkarte baten izenean doazen pertsonak bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz 5. artikulua jasotakoa bete dezaten.

#### **17. artikulua. Araudi aplikagarria.**

Araudi honetan aurreikusi gabekoetarako batzorde informatzaileei buruz toki erregimeneko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

#### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Kontseilua eratzeko lehen ekitaldian, kontseilua baliozki eratuko da honako hauek bertan izanda:

- Kontseiluburua eta idazkaria.
- Eskoriatzako Udaleko udal taldeek izendatutako pertsonak.
- Kontseiluan parte hartzeko interesa erakutsi eta eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten herriko elkarteetako ordezkariak.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean.



## **REGLAMENTO DEL CONSEJO DE ACCIÓN SOCIAL DE ESKORIATZA**

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, reguladora de los Servicios Sociales del País Vasco, en sustitución de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, establece como principio rector de la actividad administrativa en la materia, el establecimiento de cauces para la participación ciudadana en los servicios sociales. La misma norma prevé la creación de consejos locales con carácter consultivo y asesor para los temas relativos a la planificación, organización y funcionamiento de los servicios sociales, contribuyendo así a la definición de los servicios sociales mediante el debate y la elevación de propuestas a los órganos competentes.

Tanto la legislación de régimen local como el art. 24 del Reglamento Orgánico Municipal contemplan también la posibilidad de crear consejos asesores sectoriales para encauzar la participación ciudadana, con funciones de asesoramiento y propuesta.

Así, la creación del presente consejo se lleva a cabo en virtud de la potestad de autoorganización que la legislación de régimen local atribuye a las entidades locales, sirviendo a su vez de cauce para facilitar la participación de la ciudadanía en los asuntos municipales, tal y como ordenan entre otros el artículo 69 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y el artículo 43 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

El “Consejo de acción social de Eskoriatza” nace con el objetivo de convertirse en un instrumento útil para la acción social pública local. Dicho consejo pretende ser un foro de diálogo y encuentro entre el Ayuntamiento de Eskoriatza y distintos agentes sociales; así como una herramienta con la que se pueda mejorar el conocimiento de la realidad social del municipio y emprender acciones en base a información fiable y actual. Está concebido como un espacio desde el cual se recoja información, analice datos, realice estudios y se impulsen acciones en los distintos ámbitos en los que se materializa la acción social.

En todo caso, el carácter de las actividades que desde este Consejo se propongan deberá garantizar la participación e igualdad entre géneros. Por tanto, no se admitirá ningún grupo social o actividad que vaya en contra de dichos principios.



Por otro lado, teniendo en cuenta el compromiso que tiene el Ayuntamiento de Eskoriatza con el euskera, cualquier actividad que se promueva desde el Consejo deberá estar dirigida a la consecución de la normalización del euskera. Para ello, se tendrán en cuenta las directrices marcadas desde el departamento municipal de euskera.

## CAPITULO 1

### DISPOSICIONES GENERALES

#### **Artículo 1.- Objeto del Reglamento.**

Este Reglamento tiene por objeto la regulación del Consejo de Acción Social del Ayuntamiento de Eskoriatza.

#### **Artículo 2.- Carácter del Consejo.**

El Consejo de Acción Social es un órgano colegiado de participación sectorial permanente constituido como espacio para el asesoramiento, la información, el debate, el estudio y la propuesta que tiene como objetivo hacer aportaciones a la política social municipal, mejorar el conocimiento de la situación social del municipio y valorar la actividad y presupuestos vinculados a la acción social municipal.

Este consejo tiene carácter consultivo, esto es, tiene capacidad para emitir opiniones y hacer propuestas; éstas no serán vinculantes, pero se establecerán mecanismos para que estas expresiones puedan tener influencia en la actividad Municipal.

#### **Artículo 3.- Objetivo del Consejo**

El Consejo de Acción Social tiene como objetivo primordial fomentar la participación ciudadana en la determinación y evaluación de las líneas de actuación municipales en el ámbito de los servicios sociales, y en el ejercicio, cumplimiento y mejora de las competencias municipales que ostenta el municipio de Eskoriatza referidas a los servicios sociales.

#### **Artículo 4.-Funciones del Consejo.**

El Consejo de Acción Social ejerce las siguientes funciones:

- Operar como órgano consultivo en la política municipal en el ámbito de acción social y participar



en el establecimiento de objetivos generales y específicos.

- Conocer y valorar las líneas presupuestarias correspondientes a acción social así como elaborar y elevar las propuestas que considere.
- Analizar la situación social de Eskoriatza y plantear acciones encaminadas a la mejora de las condiciones socio-económicas de los colectivos más desfavorecidos.
- Conocer y analizar la evaluación de las líneas de actuación municipales en el ámbito de los servicios sociales.
- Conocer y canalizar propuestas e iniciativas que contribuyan al cumplimiento de los derechos y deberes de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales.
- Favorecer la coordinación entre las instituciones que actúan en el campo del bienestar social.

#### **Artículo 5.- Criterios lingüísticos para el funcionamiento de los órganos del Consejo.**

En el funcionamiento interno de los órganos del Consejo, se utilizará preferentemente el euskera, tanto en oralmente como por escrito, pero se ofrecerá la opción de que ese utilicen los dos idiomas oficiales de la CAV, dando preferencia al euskera por ser lengua minorizada. Cada participante podrá utilizar el idioma que quiera, pero no habrá ningún servicio de traducción.

Las actas se recogerán solo en euskera. Si algún miembro del Consejo solicitara la traducción, se le facilitará la traducción.

Los dictámenes del Consejo se redactarán en euskera o en los dos idiomas oficiales, cuando se redacten en los dos idiomas, se dará prioridad al euskera.

Las convocatorias se publicarán en la página web en los dos idiomas.

Las comunicaciones o iniciativas que pueda realizar el Consejo dirigidas a los ciudadanos deberán de ser en euskera o en los dos idiomas oficiales, en ese último caso, dando prioridad al euskera.

Cuando surja alguna situación no prevista relacionada con el idioma, se consultará con el servicio municipal de euskera.

En cualquier caso, y si lo estima conveniente, el Consejo podrá solicitar la ayuda del servicio de euskera del Ayuntamiento para garantizar la corrección de los textos en euskera.

#### **Artículo 6 .- Adscripción de medios.**



El consejo tendrá su sede en la Casa Consistorial de Eskoriatza, si bien el/la Presidente/a podrá acordar que la celebración de sus sesiones se lleve a cabo en otro lugar adecuado designado al efecto. El Ayuntamiento de Eskoriatza pondrá a disposición del Consejo los medios adecuados para que el Consejo pueda desarrollar adecuadamente su actividad.

## CAPÍTULO II

### ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO.

#### **Artículo 7.- ÓRGANOS**

El Consejo de Acción Social estará formado por los siguientes órganos:

- El/la Presidente/a.
- El Pleno.
- Las Comisiones de Trabajo.

#### **Artículo 8.- PRESIDENCIA**

La o el Presidente que será siempre el Alcalde o Alcaldesa del Ayuntamiento de Eskoriatza, o en su caso, el/la Concejala/a responsable del Área de Acción Social, previa delegación del Alcalde o Alcaldesa.

La funciones de la Presidencia serán:

- Convocar y presidir la reuniones del Pleno del Consejo.
- Convocar y presidir las reuniones de las Comisiones de Trabajo, salvo que haya habido delegación en algún otro miembro de la comisión.
- Coordinar las relaciones entre el Consejo Asesor y los órganos municipales.
- Visar la actas y las certificaciones de los acuerdos.
- Velar por el cumplimiento de los fines propios del Consejo y de la adecuación de sus actuaciones a lo dispuesto en la normativa vigente.
- Desempeñar cuantas funciones sean inherentes a su condición de Presidente/a.

#### **Artículo 9.- El Pleno del Consejo.**

Con carácter general, formarán parte:

- El /la el Presidente/a.



- El /la secretario/a del Consejo, será el/la técnico/a municipal del área de servicios sociales. En casos de ausencia, vacante o enfermedad, será sustituido por el /la empleado público municipal designado por el/a Presidente/a del Consejo.

- Vocales:

- Una persona representante designada por cada uno de los grupos municipales presentes en el Ayuntamiento de Eskoriatza. Los/as portavoces de cada grupo deberán comunicar mediante escrito al efecto presentado en el Registro del Ayuntamiento su voluntad de participar en el Consejo, y la identidad de su representante y en su caso suplente/s.
- Un representante de cada asociación municipal legalmente constituida cuyo ámbito de actuación tenga relación directa con la acción social, siempre y cuando hayan expresado su deseo de participar y ejerzan su actividad en el término municipal de Eskoriatza. Los representantes de cada asociación serán designados por la citadas entidades de conformidad con sus normas internas de organización y funcionamiento. Las citadas asociaciones deben comunicar mediante escrito al efecto presentado en el Registro del Ayuntamiento su voluntad de participar en el Consejo, designando a su vez su representante y en su caso suplente/s.

Se intentará lograr la paridad de número de mujeres y hombres.

Se intentará que las personas que vayan en representación de un grupo municipal o de una asociación puedan cumplir lo recogido en el art. 5, respecto al uso de las dos lenguas oficiales.

- Así mismo, podrán acudir en calidad de invitados, con voz pero sin voto, todas aquellas personas (físicas y jurídicas) que manifiesten tener una especial sensibilidad y voluntad de colaborar en los programas y acciones que se trabajen y desarrollen en el Pleno del Consejo y cuya presencia se considere conveniente.

Cada miembro del Consejo debe indicar si su pertenencia al mismo es a título individual o como representante de un colectivo o grupo municipal. Esto deberá figurar en el acta de constitución y en cada nuevo ingreso.



Para ser miembro de derecho en este Consejo basta con acudir a la primera sesión constitutiva del Consejo o a una de las reuniones que se celebren con posterioridad. En cualquier caso, la persona o entidad interesada deberá de haber comunicado previamente por escrito su deseo de participar.

Desde este momento el/la secretario/a incluirá sus datos en la lista de miembros: correo electrónico, número de teléfono y asociación a la que representa, si ese fuese el caso, pasando a formar parte del Pleno con voz. Tendrá derecho a voto a partir de esa misma reunión. Mientras no se indique de una manera fehaciente, por escrito o en persona en una reunión que celebre el Consejo, la intención de abandonar su pertenencia al mismo, se le considerará participante. No obstante lo anterior, si durante un plazo de un año no hace acto de presencia en las reuniones ni participa activamente (mediante correo electrónico o cualquier otro medio) en el funcionamiento del Consejo, aportando ideas o proyectos, el propio Consejo podrá decidir la no pertenencia de dicha persona al mismo. Para realizar dicha acción es requisito indispensable el comunicado a la persona por los medios habituales (email, mensaje telefónico, etc.)

Corresponderá al/a Secretario/a del Consejo llevar de forma actualizada el Registro de las personas que son miembros del Pleno de Consejo, tomando cuenta de las altas y bajas.

#### **Artículo 10.- CESE**

Perderán su condición de miembros del Pleno del consejo:

- a) Por voluntad propia expresada por escrito.
- b) Por remoción debido a incumplimiento reiterado de las funciones expresadas en el presente reglamento.
- c) Por la disolución de la Asociación, grupo o colectivo que representa.
- d) Por cambio sustancial en los Estatutos de la Asociación que modifiquen el criterio por el cual fue designado/a.
- e) Por el cambio de delegación o cese, en el caso de la Presidencia.
- f) Por cese en la asociación a la que representa o por que la propia asociación en su Junta haya decidido el cese del representante.
- g) Por fallecimiento.
- h) Por no acudir a más de 3 reuniones sin justificación alguna.

La ratificación de la pérdida de la condición de miembro del Consejo Asesor será efectuada por el Consejo a propuesta de la Presidencia.



### **Artículo 11.-RÉGIMEN DE SESIONES DEL PLENO DEL CONSEJO**

Las sesiones del Pleno del consejo será públicas.

El Pleno del Consejo celebrará su primera sesión dentro de los dos meses siguientes a la entrada en vigor del presente Reglamento. En dicha primera sesión decidirá sobre el calendario de sus reuniones, estableciéndose como mínimo dos reuniones ordinarias al año: Una, al comienzo del año (aprobados los presupuestos municipales) y la otra durante el mes de octubre o noviembre ( antes de la aprobación de los presupuestos municipales del ejercicio siguiente)

El número de reuniones que se deban convocar estará en función de los temas a tratar.

El/la Presidente/a estará obligado/a a convocar sesión extraordinaria cuando lo solicite la cuarta parte, al menos) de los miembros del Consejo.

Las sesiones se convocará , al menos, con 7 día naturales de antelación, salvo las extraordinarias que lo hayan sido con carácter urgente, en cuyo caso la convocatoria podrá hacerse hasta con sólo 24 horas de antelación, debiendo se dicha decisión ratificada por el Consejo.

### **Artículo 12.-FORMA DE REALIZAR LAS CONVOCATORIAS.**

La convocatoria para las reuniones ordinarias y extraordinarias se hará por correo electrónico enviando a la dirección facilitada la convocatoria y el borrador del acta de la sesión anterior.

La convocatoria también se enviará a la web del Ayuntamiento en las dos lenguas oficiales.

La convocatoria se hará llegar a los participantes con una antelación mínima de 7 días naturales.

Será el/la Presidente/a del Consejo el/la que establezca la convocatoria y el orden del día.

Podrá debatirse un asunto de urgencia y trascendencia que no figure en el orden del día previa votación por mayoría simple de los/as asistentes/as.

La válida celebración de las sesiones requiere la presencia mínima de un tercio de los /las componentes del Consejo, ya sean titulares o suplentes. En todo caso se requiere la asistencia del Presidente/a y del/a Secretario/a o de quienes legalmente le sustituyen.

### **Artículo 13.-FORMA DE RECOGER LOS ASUNTOS TRATADOS EN CADA SESIÓN**





El /a técnico/a municipal del área de servicios sociales, es decir, el/la secretario/a del Consejo, levantará acta de cada sesión, en la que se especificarán las personas asistentes, los principales aspectos de las deliberaciones y el contenido de los acuerdos adoptados.

Las actas se redactarán conforme a los criterios lingüísticos establecidos en el art. 5.

Las actas se aprobarán en la siguiente sesión.

#### **Artículo 14.-FORMA DE ADOPCIÓN DE LAS PROPUESTAS**

Según la normativa vigente, el carácter del Consejo es informativo y por lo tanto el consejo no tiene capacidad resolutive.

Las propuestas referentes a los asuntos tratados en la reuniones se adoptarán por mayoría simple de los/as asistentes. En el caso de votaciones con resultado de empate se efectuará una nueva votación y, si persistiera el empate, decidirá el voto de calidad del/a Presidente/a.

Los dictámenes del Consejo, al tener éste un carácter consultivo y de participación ciudadana, tendrán una importancia singular, con el rango de recomendaciones para los Órganos de Gobierno municipal. Estos Órganos de Gobierno deberán dar respuesta motivada a aquellas recomendaciones que sean rechazadas. Tanto los dictámenes del Consejo como las respuestas de los Órganos de Gobierno, deberán ser hechos públicos en la página web del Ayuntamiento a fin de que los ciudadanos que lo deseen puedan estar informados.

Dichos dictámenes se redactarán conforme a los criterios lingüísticos establecidos en el art. 5.

#### **Artículo 15.- DERECHOS Y DEBERES DE LOS MIEMBROS**

Derechos:

1. Derecho a voz y voto.
2. Derecho a participar en las propuestas y a plantear temas de interés para ser estudiados en el Consejo.
3. Derecho a solicitar los datos correspondientes al nivel de cumplimiento del Ayuntamiento en cuanto a las propuesta aprobadas y a recibir respuesta por escrito.



4. Formar parte de cualquiera de los Grupos de Trabajo que se constituyan en el seno del Consejo.

Obligaciones:

1. Acudir y participar activamente en el Consejo. La inasistencia no justificada de tres reuniones consecutivas será causa suficiente para que acordar su cese.
2. Cumplir el Reglamento del Consejo
3. Respetar las propuestas aprobadas en el Consejo.
4. No tener conductas o realizar actividades o manifestaciones contrarias a los principios y objetivos del Consejo.
5. Mantener una relación continuada con las asociaciones o entidades a las que representan sobre los temas que se vayan a tratar o se hayan tratado en el Consejo.
6. Comunicar cualquier cambio en la dirección de contacto o alteración en la situación jurídica de las personas que ostentan la representación en el Consejo.

#### **Artículo 16.- GRUPOS DE TRABAJO**

En el ámbito del Consejo se podrán crear grupos de trabajo.

El Consejo, a iniciativa de su Presidencia o de un tercio de sus miembros, podrá acordar la constitución de los Grupos de Trabajo que se consideren necesario, así como nombrar a los miembros que lo integren.

Dichos grupos actuarán para asuntos concretos y determinados y durante un tiempo limitado. Una vez finalizada su actuación, el resultado de la misma se trasladará al Consejo para que adopte en su caso el acuerdo que proceda.

Los Grupos de Trabajo estarán presididos por la Presidencia del Consejo, quien podrá delegar en cualquier miembro de éste.

En todo caso, los Grupos de Trabajo estarán integrados por miembros del Pleno del Consejo. Asimismo, se podrán incorporar a los Grupos de Trabajo como colaboradores aquellos técnicos, expertos o cualquier otra persona cuya presencia en la reunión resulte conveniente.

Se intentará lograr la paridad de número de mujeres y hombres.

Se intentará que las personas que vayan en representación de un grupo municipal o de una asociación puedan cumplir lo recogido en el art. 5, respecto al uso de las dos lenguas oficiales.



#### **Artículo 17.-NORMATIVA DE APLICACIÓN.**

En todo aquellos no previsto en la presente normativa se aplicará lo previsto en la normativa de régimen local respecto a las Comisiones Informativas.

#### **DISPOSICION TRANSITORIA**

En el acto de primera constitución del Consejo, este se formará válidamente con la presencia de:

- El /la Presidente/a y el/la Secretario/a.
- Personas designadas por los grupos municipales presente en el Ayuntamiento de Eskoriatza-
- Representantes de todas aquellos asociaciones del municipio que hayan mostrado su interés en participar y cumplan con los requisitos exigidos.

#### **DISPOSICIÓN FINAL**

El presente reglamento entrará en vigor una vez sea publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.